

BERRIGARA

zenbakia

JARDUN Elkarte Bergara

1994, uztailak 1



**Eguraldiak
lagundu dezala...**

Autoberezi




FIAT

Alfa Romeo



ANTIGUA AUZOA, ANTZUOLA (GIPUZKOA)

☎ 76 62 10 / 76 62 75



BERGARAKO OSASUN Gida

ALBAITARIAK:

- ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak) ☎ 76 43 29
- ETXEBERRIA Julio (Deba Garaiko albitari ofiziala). Telefono mobila. ☎ 908 77 17 32
- IRASTORZA BENGEOA Sabin (Granjako animaliak) - Iribar baserria ANTZUOLA. ☎ 76 53 46
- NOGUEIRA Humberto (BALDANA klinika). 90 81 09 30 - Koldo Eleizalde, 28. ☎ 76 27 97

ANALISI KLINIKOAK:

- LABORRA Isabel - Oxirondo 4, 1.B. ☎ 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA:

- IRIGOYEN Victor - Oxirondo 4, 1.B. ☎ 76 32 06

DENTISTAK:

- ASTIAZARAN SOLOZABAL - Iparragirre, 1 behea. ☎ 76 27 95
- GOROSABEL J. Alberto - Fraiskozuri, 5 behea. ☎ 76 56 88
- IRIARTE Idoia - Artekale 1, 1.C. ☎ 76 01 65
- SUDUPE Felipe - Matxiategi, 18 behea ezk. ☎ 76 07 66
- GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E.M. - S. Arrieta 3, 2.B. . ☎ 76 38 54

HAGIN KLINIKA:

- BERGARA HAGIN KLINIKA - Bidekurutzeta 6, 2. (Lehen Notaria zegoen tokian). ☎ 76 05 77

MASAILARIAK:

- AZPEITIA Irune - Telesforo Aranzadi 1, 2. ☎ 76 14 08
- CASANELLAS Jabier - Boni Laskurain 5, 2.E. ☎ 76 03 78
- GIARTZU - Boni Laskurain, 3 behea. ☎ 76 35 71
- MARTINEZ Luis Jabier - Masterreka 7, 3.A. ☎ 76 51 18

MEDIKUNTZA OROKORRA:

- ARCINIEGA Julio - Boni Laskurain 3, 1.B. ☎ 76 37 50

PEDAGOGOAK:

- IZETA Maribi (Gabinete psikopedagogikoa: logopedia, psikomotrizitatea) - S. Arrieta 3, 2.E. ☎ 76 26 42

PODOLOGOAK:

- ALTUBE Edurne - Simon Arrieta, 2. ☎ 76 07 84
- AZPIAZU Arantzazu - Herri Lagunak, z/g. ☎ 76 41 32

PSIKIATRA:

- GALLASTEGI Pablo - San Martin Plaza 2, 1.ezk. ☎ 76 26 64

PSIKOLOGOAK:

- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). ☎ 76 14 80
- URKAREGI Pakita (Psikologo klinikoa). ☎ 76 53 13
- ZUBILLAGA Marisa (Psikologo klinikoa). ☎ 76 30 76

Z E R B E R R I D A ?

JUAN IDIGORAS

San Martzial ermitako Batzordekoa

- Zer nolako konponketak egin dira ermitan?

- Ermitako teilatua berrizteko lanak egin dira nagusiki; izan ere, itokinen eraginez koruko habeak usteltzen ari ziren eta gogortu egin behar izan dira. Teilatuko sapaiaren zati haundi bat ere hondatuta zegoenez gero, berriztapena ezinbestekoa zen. Hori egin ahal izateko ermita barrua garbitu eta karez zuritu da.

- Zein aurrekontu izan dute lan horiek?

- Danera, aurrekontua, 2.334.736 pta. -koa izan da eta dirubiletak eta opariz jasotakoari esker, 848.987 pta. batu ditugu. Orain-



dik asko falta zaigu eta herritarron laguntza jaso ahal izateko hainbat kontu korrante ireki ditugu: Banco Guipuzcoanon (8120-5), Euskadiko Kutxan (00-9.1.03349.1) eta Kutxan (01.02106803.8). Laguntza eman dutenei eta emango dutenei ere, aldezaurretik, gure eskerrona.

"San Martzial ermitako obrak ordaintzeko oraindik asko falta da"

I T U R R I O N E T I K

Udaleko aurrekontuak onartuko dira asteleheneko Plenoan

Bergarako Udalaleko 1994ko aurrekontuak aztertuko dira asteleheneko Plenoan, arratsaldeko 7^o erdietatik aurrera Kultur Etxean. Udal Gobernuko iturrien arabera, "aurrekontuak 2.094 milioi pezeta ingurukoa da eta iazkoarekin konparatuz (1.884 milioi) gora egin du, Udaletxeko obretako azken fasearen ordainketagatik batipat. Bestelako sailetan, gastu arruntetan, murrizketak izan dira eta pertsonal gastuetan adibidez igoera 0 izan da". Pentsa daiteke aurrekontuak EAJ eta PSE-EEren botoekin onartuko direla.

E S A N D U T E

"Gerraostean Venezuelako euskaldunek eutsi zioten nazionalismoari"

JOKIN INTZA Jeltzalea DEIA

"Une hauetan Bergararen garapenerako garrantzitsuena San Antonio, Masterreka, Bergarako ensantxea, aurrera ateratzea da. Kasko historikoa ondo zehaztuta dago, zona periferiko garatuak ere baditugu (Bolū eta Toki-Eder, Zubieta eta Martokua; Zubiaurre ere bai) baina ezer egin gabe dagoena zentrua da, ensantxea. Logikoki aurrera atera beharreko urgenteena da hori"

JABIER YEREGI Udal arkitektoa ARIZ-ONDO

"Herriko rock taldeek ez dute inoiz musika beharrezko seriotasunarekin hartu. Gainera Bergarako taldeek beren gustoko musika egin ohi dute beti, jendearen gustoak kontutan izan barik. Guk ez dugu "Euskadi Gaztea"ko musikarik egiten"

DAXKA Rock taldea ARIZ-ONDO

Erretalde Jauregia, 20.570 Bergara.

Telefonoa eta faxa: 76 03 97

Argitaratzailea:

Argitun Elkarte

Masterreka, 13. 20.570 Bergara.

76 08 19

Zuzendaria:

Gorka Elorza.

Erredakzioa:

Gorka Azkarate, Eduardo Mendibil eta

Mikel Elkoroberezar.

Maketazioa:

Gorka Azkarate eta Eduardo Mendibil.

Publizitatea eta harpidetzak:

Alex Azkarate eta Gorka Elorza.

76 03 97

Elaboratzaileak:

Jose Angel Mikeo, Estepan Plazaola,

Miguel Angel Elkoroberezar, Alex

Labaien, Iñaki Eraña, Juan Martin

Elorpuru, Josu Oregi, Maripe Laskurain,

Merche Alzelai, Ainhoa Lete, Jon Ander

Benjoo, Mikel Lizarralde, Monika

Belastegi, Aitziber Aretxaga eta Ainhoa

Alkua.

Komikia eta marrazkiak:

Simon Rodriguez, Gorka Ortega, Jon

Mvarez, Jose Martin Ezenarro

eta Julian Ezenarro.

Portadako argazkia:

Mariano Azkargorta.

Idazketa:

Mariano Azkargorta.

Tirada: 3.700 ale.

Primategia:

Artu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

Copyright: BERRIGARA

Lege gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599


BERRIGARA ez du bere gain hartzen ezinbestekotasun adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Aidizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aidizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du




Aidizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura sailaren laguntza jaso du



Zinea

▼▼ **Steven Seagal** aktorearekin ez dago atsedetik. Oraingo honetan, Alaskako lurak petroleo konpainia baten aurrean defendatzeagatik borrokatuko du. **Seagal** ez da bere giharreak luzitzearekin konformatu eta filmeko zuzendaria eta produktorea da. Berarekin batera, **Michael Caine** eta **Joan Chen** (*Twin Peaks*) errepartoan.



Deiak

▼ **Benita Gallastegi** eta **Kimu Arrutiren** margo erakusketa Nahikari tabernan.

▼ **Bedelkar** Bergarako Dendarien Elkarteak komertziantze guztiei zuzendutako hitzaldia iragarri du astearterako, uztailak 5. Arratsaldeko ordubi t'erdietatik aurrera Kultur Etxean *"Elementos informáticos para el comercio moderno. Para qué sirven y qué precios tienen"* hitzaldia izango da.



Ogia

▼ **Igandea 3:** Mizpildi.

Herri Olinpiadei hasiera emango zaie astelehenean arratsaldeko 5etan San Martin Plazan. Ehundik gora lagunek eman dute izena (10 kuadrila) dagoeneko. Astelehenean mahai jokuak (Plazan) eta bolo, toka edota igel jokuak (Jubilatueta) izango dira. Hurrengo egunetan, oster, Herri kirolak eta abarrak jokatuko dira.



GOARDIAKO FARMAZIAK

- ▼ **Larunbata 2:** Puy.
- ▼ **Igandea 3:** Puy.
- ▼ **Astelehena 4:** Guallar.
- ▼ **Asteartea 5:** Estella.
- ▼ **Asteazkena 6:** Mozos.
- ▼ **Osteguna 7:** Camacho.
- ▼ **Ostirala 8:** Puy.

EN TIERRA PELIGROSA
Ostirala: 22.30.
Larunbata: 17.00, 19.30, 22.30.
Igandea: 19.30, 22.15.
Astelehena: 19.30 (Ikuslearen eguna).



ANTIA
ARATEGIA URDAITEGIA
Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.
Matxiategi, Tfnoa: 76 15 09

Barrenkale, 23 ☎ 76 29 65

ederTU
ALTZARIAK

Amets

- HERGO eta HOBBY karabanak eta RIVIERA autokarabanak.
- Zango erremolkeak.
- Era guztietako kanping eta karabanentzako osagarriak.

Informazioa: ☎ 76 25 92 / 78 19 50
AMETS TAILERRAK
Berezano auzoa OÑATI

ZUBIAURRE
aroztegia

SARRERAKO ETA BARRUKO ATEAK.
HORMA ARMAIRUAK.
EGURREZKO ETA PVC-ZKO LEIHOAK.
ERA GUZTETAKO AROTZ LANAK.
Zubiaurre, 2 ☎ 76 15 14 / 76 35 73

Ostegunean San Martzial eguna ospatu ondoren, bergararrok hain maite dugun San Martzial ospakizuna izango da igandean. Aurretik, larunbaterako, hainbat ekitaldi iragarri dira; arratsaldeko 7.30etan, buruhaundi eta erraldoein kalejira izango da Udal Txistulari Banda eta Kobok dultzainero taldearekin eta ondoren bonba japoniarrak San Martin Plazan. Gaueko 11etan karaoke saioa egingo da Espoloian eta bertan nahi duenak bere kantari bertuteak erakutsi ahal izango ditu jende aurrean.

Igandean, goizeko 9.15etan alborada izango da dultzainero, Zumarragako trikitilari, Udal Txistulari Banda eta Los Incansables txarangarekin, 10etan San Martzialera gurdi igoera eta 11etan Meza Nagusia. Eguerdian, Los Incansables txaranga San Martzialera iritsiko da eta 12.15etan Xamatx taldeak emanaldia eskeiniko du; ondoren, Bedelkar Bergarako Dendarien Elkarteko zozketa egingo da. Eguerdiko 12.30etan ohizko aurrekua dantzatuko da eta ordubatatzen Egileor eta Gorrotxategi bertsolarien sa-

SAN MARTZIALAK DOMEKAN

Urteko jairik jatorrenetakoa

Goizeko 10etan igoko du gurdiak; iluntzean jeitsiera



Ehundaka eta ehundaka bergarar bilduko da aurtien ere San Martzialeko zelaietan.

ioa. Gogoratu bolatokia egun osoan zehar irekita izango dela.

Arratsaldean, 6etan, kuadrilenzako jokuak, soka-tira eta txinga probak jokatu dira. Emakumeen kategorian 4 taldek eman dute izena eta, gizonezkoetan, berriz,

gehienez 8 talde izan daitetzke eta 5k izena emana dute. Ordu berean, 6etan, ere Aranzabal Orkestak alaitutako erromeria eta gaueko 9etan txistulari, dultzainero, trikitilari eta txarangak alaitutako jeitsiera egingo da. Gaueko 10etatik aurrera, berriz, txistulariak, dultzaineroak, trikitilariak eta txarangak alaitutako erromeria Plazan.

Igandeko jaiaren arrakasta aurtien ere ziurtatuta dago eta horren lekuko

datu bat: Udalak alokatutako 116 mahaiak berehala hartu zituzten herriko kuadrila ezberdinek. Jai Batzordeak jakitera eman duenez, "igandean ezin izango da zelaira kotxez sartu, bertan instalaturiko estalezimenduetara jeneroa daramana izan ezik. Eramandako materiala laga ondoren bertatik alde gein beharko da, Askatzu baserriaren inguruan aparkatu ahal izango delarik".

Bergarako Igeri Elkartea arduratuko da San Martzialeko tabernaz



ETXEPARE-BILINTX

LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 ☎ 76 40 50 BERGARA

Ekainaren 20ko ekintza basatien aurrean

Ekainaren 19. eta 20ko goizaldeetan, herrian hainbat ekintza basati izan ziren, hauen artean Batzokiko paretetan pintadak eta kristalen apurketa. Ekintza hauen aurrean, Bergarako EAJ-PNVk honako hau adierazi nahi du:

1.- Asperturik dagoela zenbaitzuk, faszismoaz mozkorturik, egindako ekintzak jasaten.

2.- Ez dagoela prest, lau Eusko-Nazi, beraien parada faszisten ondoren eta amorruren eraginez, egindako ekintzen aurrean besoak gurutzatuta gelditzeko.

3.- Ekintza hauen aurrean, Bergarako herriari eskatzea, ez dadila ixilik egon eta denon ezagunak diren ekintzaileen aurkako jarrera izatea.

BERGARAKO EAJ-PNV

Ondo pasa San Martzialak baina formal ibili

Azkenean heldu da urte guztian zehar espero dugun jaia, San Martzial eguna. Ostegunean letaniara joaterik izan ez genuenok domekan izango dugu ospatzeko aukera: lagunekin bildu, jaiaz gozatu eta herritar guztiak primerako eguna igaroz, goizean goizetik iluntzera arte.

Azken 20 bat urtetan hor izan gara "kale" egin gabe eta gaur egun jaiak inoiz baino jende gehiago erakartzen duela aitortu behar da. Orain urte asko ez direla beherakada nabaria jasan zuen aspaldiko jai honek eta egoera larrian ere izan zen zenbait urtetan. Zorionez, errekueratu eta gaur egun osasun ezinhobea duela esan genezake.

Hala ere, zenbait gauza ere botatzen dira faltan, igande goizeko letania adibidez. Ondo iruditzen zait San Martzial egunean (ekainak 30) letania egitea baina kontutan izan behar da baita jende gehienak ezin duelao joan (aste barruan tokatzen bada behintzat). Horregatik San Martzial egunean bai baina domekako San Martzial ospakizunean ere letania

egotea eskatuko nieke Udaleko Jai Batzordeko Berrigarak eskaintzen didan espazio honetatik.

Bukatzeko garbitasuna aipatuko nuke; milaka bergarar bertan biltzen garela kontutan izanik, guztion artean paraje zoragarri hori ahalik eta garbien mantentzeko esfortzu txiki bat egin dezakegu, guztion onerako eta datozen belaunaldiek ere jai zoragarri honetaz baldintzarik onenetan disfrutatu dezaten. Besterik gabe, mila esker guztioi eta inoiz baino San Martzial alaiatsuak izan ditzagula aurten. Eta eguzkia ager dadila San Martzialetik...

JUAN BEREZIARTUA

Tiira biraka

JULIAN EZENARRO



Herri Batasunak

euskal preso politikoen eskubide penitentziario eta penalen errespetuaren inguruan aurkeztutako mozioa atzera botatu zen plenoan, HB eta EAK moziorearen alde eta EAJ eta PSE-EEk kontra botatu ondoren.

HBren mozioak "euskal preso politikoei gaur egun bizi duten egoera itogarria" salatu eta "gaisotasun fisiko nabiz psikiko sendaezinak dituzten preso beldintzapeko askatasun-eskareei bidea emateko" eskatzen zuen. Era berean, "askatasunik gabeko egoeran dauden bitartean, hurbileneko garitzeletan egoteko eskubidea dutela" gogoratzeko HBk. Boto esplikazioan, Jesus Mari Garitanok (HB) azaldu zuenez, "mozioa maiztaren 7tik aztertzeke izatea errespeto falta bat iruditzen zaigu. Bestetik, zuen jokaera salatu nahi genuke: demokratikoak zaretela diozue eta guk zuek onartutako legea betearazteko baino ez dugu eskatzen. PSOEek Madriletik agindutakoa praktikara eramatea mugatzen zaretela". Victoriano Gallastegi alkateak HBri orainarte

Presoei buruzko HBren mozioa ez zen onartu

HB eta EAK alde eta EAJ eta PSE-EEk kontra botatu zuten

bere mozio guztiak errespetatu zaizkiola erantzun zion eta Koldo Pereirak (EAJ), berriz, "gai hau Eusko Legebiltzarrean aztertu beharrekoa dela eta bertan egiten den lanarekin bat egiten dugula" adierazi zuen.

Bestalde, Espoloi gunea oinezkoentzat egiteko 560.000 pta.ko gastua eta Diputazioari Albitxu, Txara, Osintxu, Angiozar eta Elosuko ur-gordailuetan klorazio instalazioak ipintzeko dirulaguntza eskatzea onartu zen EAJ, PSE-EE eta EArekin alderatuz HBren kontrako botoekin. Azkenik, Kutxari, udal bulegoak dauden Barrenkale 7ko lokalaren alokairua urte amaierara arte luzatzea eskatzea erabaki zen.

Erregu eta galderetan, Kontxi Irizarrek (EA) Industrialde eta Xabier De Zerioeren eskulturaren (desagertuta zegoela komentatu zen lehen) gai-



Astelehenerako Plenoan udal bulegoak, urte amaierara arte Barrenkalen jarraitzeko eskakizuna egitea erabaki zen.

neko galderak egin zituen. Victoriano Gallastegik UCEM eta Arregik lursail batekin dituzten arazoak konpondu ahala, konbenioa sinatu daitekeela erantzun zion. Eskulturari dagokionez, "Udaletxeko biltegi batean gordeta dagoela" esan zuen. Felix Askasibarrek (HB), jaietan Egin egunkaria dirulaguntza barik uztea eta Hezkun-

tza Batzordearen aktibitate eza salatu zuen. Victoriano Gallastegik Egin egunkariaren inguruan akordio bat hartuta dagoela eta "inork ez duela dirulaguntzarik jasotzen, publizitatea baizik" erantzun zuen. Koldo Pereiraren hitzetan, "Hezkuntza Batzordearen txostena azaltzeko uztailean ikastetxeekin biltzeko asmoa dugu".



Istripu larria Uberan

21 pertsona zaurituta gertatu ziren asteartean Uberan, Bizkaitik Antzuolara zetorren autobus batek istripu bat izan ondoren. Istripua Elgetatik Uberarako bidean dagoen azken errebueltan gertatu zen; Bermeoko "Cannon bus" enpresako BI-9822-AD matrikuladun Saba autobusak 15 metroko aldapa batetik behera egin zuen arbola baten kontra txoke egin arte. Aurrekaldean zihoazen bidaiariek jasan zituzten kolperik gogorrenak. Hiru izan ezik, bidaiari guztiak (55 eta 70 urte bitartekoak) Maruri familiakoak ziren eta Antzuolara familiako baten hileta elizkizunetara zetozen. Bost ingresaturik daude oraindik.

◆ Hautesleen zerrenda jende aurrean

Herritarrei jakinarazten zaie hautesleen zerrenda arrunta jende aurrean izango dela uztailaren 11ra arte Udaleko Idazkaritzan, tarte horretan erreklamazioak aurkezteko aukera izango delarik. Erreklamazioak aurkezteko N.A.N.ren fotokopia beharrezkoa da.

◆ Selektibitateko emaitzak

Ipintza Institututik Selektibitate azterketa egin zuten ikasleetatik, gaztelerazko taldean 15etik 11k gainditu dute eta, euskarazkoan, 76tik 71k. Aurreko urtetik aurkeztutakoen artean, berriz, gaztelerazko taldean 3k suspenditu dute eta euskarazkoan, 4tik 2k. Azterketa gainditzerik izan ez dutenek eta beste 60 ikaslek irailean beste aukera bat izango dute.

◆ Argazkilari sarituak

Zumaia Hiriko VI. Argazki lehiaketan, Pol-Pol Argazki taldeko Dani Santosek 2. saria eskuratu du zuribeltzeko kategorian eta Benito Canterok hirugarrena. Amurrioko Argazki Rallyan, berriz, Dani Santos bigarren postuan sailkatu da.

◆ Taun-Taun Madrilen

Taun-Taun Bergarako Helduentzako Txotxongilo taldea hiru emanaldi eskeintzekoa zen Madrileko Sala Triangulon atzo, gaur eta bihar. Atzo "Bi kate" antzestu ondoren, gaur eta bihar "Taun-Taun Show" ikusteko aukera izango da.



Plataforman, intsumisioaren arazoarekin kezkatuta dauden herritarrak bildu nahi dira.

Intsumisioen aldeko Plataforma

Arazoa zuzenean sufritzen ez dutenen herri ekimena

Asteazkenean aurkeztu zen Kultur Etxean Bergarako Objetoarekin eta Intsumisioen Aldeko Plataformaren inguruan intsumisioaren arazoa zuzen-zuzenean jasan ez arren, problema hori sufritzen dutenen guraso, anai-arreba, lagun edota auzokideak bildu nahi dira: "gure asmoa intsumisioarekiko gizartearen sentsibilizazioa bultzatzea da, horregatik abalik eta herritar gebienak bildu nahi ditugu Plataformaren inguruan, adin edota ideologia mugarik jarri barik, abalik eta zabalena izan dadin. Plataformak hartuko duen bidea, bertara hurbiltzen diren pertsonen markatuko dute" adierazi zuten Pili Garciak, Plataformako kide batek.

Aurkezpenean, Plataformaren

asmo eta helburuak azaltzen dituen manifestoa eman zen ezagutzera. Bertan irakur daitekeenez, "bakotzaren abalmenen arabera, indarrean dagoen konstituzioak aitortzen dituen oinarrizko eskubideak defenditzeagatik askatasuna ukatzen zaien herriko objetoreei laguntza morala, humanitarioa edo beste eratakoa eman nahi zaie".

10 intsumisio bergarar epaitu dituzte dagoeneko. Herriko intsumisioak (45 bat) Bergarako Objetoarekin Talde Antimilitarista (BOTA) bildu dira. Hala ere, Plataformako kideek BOTArekin inolako binkulaziorik ez dutela adierazi zuten: "BOTAk bere estrategia antimilitarista jarraitzen du eta Plataformak intsumisioa sufritzen dutenei laguntza eman nahi die".

IBARGUREN PENTSUAK

Biona pentsuen biltegia.
Bioter produktoak eta haziak.

San Pedro 3, Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

EXLUKUN

BEREZITASUNAK

Fraiskozuri 6, ☎ 76 51 62
BERGARA



Zapatutan etortzen diren kanpotarrei gauzak erraztea da asmoa.

OTA zerbitzua jarriko du Udalak

Oraingoz Merkatu berriko aparkalekuan bakarrik

Udaleko Gobernazio Batzordeak azoka berriko aparkalekuan OTA zerbitzua jartzea erabaki du. Jabier Gabilondo batzordeburuaren hitzetan, *"printzipioz azoka parean egin berri den aparkalekuan bakarrik jarriko da. Arriskua dago jendeak kotxea hiruzpalau egunez bertan lagatzeko eta larunbatean UNEDekin eta merkatuarekin ere izango den mugimendua kontutan izanik, ba kanpotik datorren jendeari gauzak errezea nahi izan dugu"*.

Bertan aparkatu ahal izateko (60 bat aparkaleku dira), gidariek txartel batzuen truke dirua ordaindu beharko dute, Donostian edo Bilboko zenbait gunetan egin ohi den bezala. Gobernazio Batzordea, dagoeneko, honelako zerbitzua es-

keintzen duten hainbat enpresaren aurrekontuak aztertzen ari da eta behar diren makinak jartzeak milioi erdi pezeta inguruko aurrekontua izango luke.

Azoka berria irailean inauguratuko bada ere, OTA zerbitzua zertxobait beranduago jarriko litzateke martxan; *"ez nuke data zehatz bat eman nahi baina urri-azarorako jartzea espero da"* azaldu digu Gabilondok. Esan bezala, OTA zerbitzu hau ez da oraingoz herriko beste kaleetan oraingoz jarriko; *"honekin hasiko gara eta gero ikusi egin behar herri erdian jartzea komenigarria den"*.

OTA zerbitzua orain dela urte batzuk jarri zen martxan hiri haundietan. Hale re, inguru hauetan eta herri txikietan ez da inon jarri.

◆ Ginekologija zerbitzuari kezak

Emakumeentzako ekintzak antolatzen dituen taldeak dei egiten die anbulategiko ginekologija zerbitzuaren gainean kebaren bat aurkeztu nahi dutenei uztailean anbulategitik pasatzeko. Bertan kezak aurkezteko inpresoko modelo bat izango da. Interesatuak goizeko 8.30etatik 14.30etara jo dezakete anbulategira.

◆ Santa Marina jaietako tanborrada

Astearte eta asteazkenean, uztailak 5 eta 6, Santa Marinako jaietako tanborradako entsaiuak egingo dira 19.30etan San Martin de Agirre eskolan. Interesatutako haur, gazte eta nagusiei bertara joateko dei egiten zaie.

◆ Udal Liburutegia

Uztailean Udal Liburutegia goizez bakarrik izango da zabalik, 8etatik ordubatera. Larunbatetan itxita egongo da.

◆ Valdemoroko espexera bisita

Amnistiaren Aldeko Batzordeak antolatuta, ostiraletik larunbatera bitarteako gauean, 2.30etan, Valdemoroko espexera autobusa aterako da Beheko Estaziotik.

◆ San Martzialak

San Martzialen kontainerrak eta boteilentzat igluak jarriko dira. Bestalde, enkargatutako mahaia larunbatean banatuko dira, 5etatik 8etara.

GOIERRI

Autogidarien eskola

Fraiskozuri Enparantza 5

Tfnoa: 76 41 50

BERGARA

ARRANO



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

Bergarako Kultur Ekintzak azken Batzar orokorra egin zuen zapatuan

Arazo ekonomikoak direla medio desagertu egingo da

Joan zen larunbatean Miguel Altuna Institutuan egin zen Batzar Orokorra hurbildu ziren dozena bat bazkide inguruk Bergarako Kultur Ekintza elkarte desegitea erabaki zuten. Horrela, bada, orain dela 27 urte jaio zen kultura elkarte eta, berarekin batera, Ariz-Ondo aldizkaria, desagertu egingo dira.

Elkartea desegitearen arazoak aztertzerakoan bi azpimarratu daitezke. Alde batetik, Ariz-Ondo argitaratzeagatik Udalak elkarteari ematen dion dirulaguntzan murrizketak izan direla aurten (adierazi zuten 1.800.000 pzta. gutxiago jasoko dute). Honen inguruan, zera adierazi zuen zapatuan Luis Mari Beitia elkarteko presidentek: "19-90eko ekainean, Ariz-Ondo berriz ere argitaratzeari ekin genionean, bi urteko epean guztiz euskaraz egiteko konpro-

mezua hartu genuen. Epe hori agortu da eta ez dugu hitza bete. Hori dela eta, Udalak subentzioa murriztu egin digu aurreten".

Bergarako Kultur Ekintzaren (BKE) desagertzearen beste arrazoi nagusia, elkartean lan egiteko jenderik eza izango litzateke. Bai zuzendaritzan zein elkarteak antolatzen dituen ihardura ezberdinak dinamizterako orduan, azken urteetan ez da aldaketarik izan, elkartera ez da jende berririk agertu eta horrek nekea eragin die aspalditik lanean ari direnei.

BKEk 9.500.000 pzta.-ko gastuak izan zituen iaz eta sarrerak 6.500.000 pzta. koak izan ziren. Ariz-Ondo aldizkariak 6 milioi pzta. ko gastuak izan zituen eta Beitia adierazi zuen moduan: "Udalaren subentzio murrizketaren ondoren



Luis Mari Beitia eta Regino Valle BKEren azken Batzar Orokorrean.

2.000 bazkide beharko litzateke elkarteak eta bazkoitzak 2.700 pzta. ko kuota ortdaindu beharko luke gastuei aurre egiteko". BKEk 500 bazkide inguru ditu gaur egun. Bazkide batek errebistaren aldeko firma bilketa egitea proposatu zuen baina, Zuzendaritzak ez zuen onartu, "era horre-

tako deialdiek ez baitute orain arte esperotako erantzunik izan".

Zapatuan hartutako erabakien arabera, egun hauetan elkartearen ondasunen inbentarioa egingo da. Ondoren, mobiliarioa herriko kultura elkarte ezberdinen artean banatzeko asmoa du BKEko Zuzendaritzak.

Meminen omenezko astea

Iñaki Martínez "Memin"en omenez, astelehenean, uztailak 4, "Rebelión en las ondas" filmea emango da Usondo parkean 11etan; asteartean, 7.30etan, dultzainero, hankapalu eta titiriteroekin kalejira eta 10.30etan Brankan eta Beltzez taldeekin kontzertua Pol-Polen; asteazkenean, 7etan blues kontzertua Kruz Gallastegin eta 10.30etan gau-tertuliak Etxagi, Pol-Pol, Infernukua eta Arranon; ostegunean, 7etan jazz kontzertua Kruz Gallastegin, gau tertuliak eta *Dena Klowntrolpean* antzeslana Pol-Polen Lenitz bailarako bertsolarien laguntzaz; ostiralean 7etan Mariaren lagundian jaialdi ekitaldia eta larunbatean 8etan Hirukurutzetara mendi irteera eta ondoren bere oroimenezko harriaren inaugurazioa eta bazkaria.



Elikadura

Okelaren Labela

- Okelaren kalitateko Eusko Labela aurkeztu berri duzue. Zer suposatzen du honek?

- Labelak, produktua-
ren jatorriaz aparte, kalitate maila altuko produktua izendatzen du, kalitate distintibo bat da azken finean. Dagoeneko Arabako patatak, Esneko bildotsak, Gernikako piparrak, Eztiak, Baserriko Oilaskoak eta orain Haragiak izendapen hori eskuratu dute. Labelaz aparte badira beste bi izendapen: Jatorrizko izendapena (kalitate ona duena baina gehienbat jatorria ziurtatzen duena) eta Euskal Baserri (barazki eta fruituen jatorria).

- Labelak produktua-
ren prozesu guztia kontrolatzen al du?

- Bai, haragiaren kasuan, ganadua jaiotzen denetik kontrolatzen da eta bere bizitza osoan zehar jarraipen bat egiten zaio. Ganaduaren manejan behar bezalako tokiak izatea eskatzen da eta baita forrajea eta belarraz aparte, jateko pensua, garagarra, artoa..., etab. ematea. Hiltegiatar

eramaterakoan ere ganadua kurioso tratatu behar da eta hiltegieta-
ganadua behar bezala hil ondoren frigorifikoetan tenperatura, hezetasuna eta denbora egoki batez mantendu, heldutasuna oso garrantzitsua baita. Salmenta puntuetan ere kontrol bat eramango dugu; erosleek *ticket* bat jasoko dute eta egunero saldu denaren kontrola eramaten dugu.

"Labelak, kalitate maila altua izendatzen du; kontsumitzailea da lehen benefiziatua"



Kalitate onena izateko, ganaduaren prozesu osoa zaintzen da.



GERMAN MURUAMENDIARAZ

(Eusko Jaurlaritzako Elikadura Politikarako Zuzendaria)

- Bertako zenbat haragi kontsumitzen da?

- Euskal Autonomi Elkartean kontsumitzen den haragitik, 1/3a hemen produzitutakoa da. Beste 2/3ak kanpotik datozkigu, Aragoi, Katalui-

na, Alemania, Danimarka, Frantzia edota Irlandatik. Haragi asko ari da sartzen eta kanpotik datarren haragi dena ez da berdina. Esplotazio motak zeresan haundia izaten du. Ikuilu haunditan ganadua subproduktuekin hazten da eta elikadura desberdina da.

Produktoreen elkar-
teak sortzea ere beharrezkoa da, hainbat produktu orain behar bezala heltzen ez diren tokietara heltzeko. Haragiaren kasuan, hemengo haragiaren % 70a bailara eta herri txikietan kontsumitzen da eta % 30a bakarrik hirietan.

- Labelak badu eraginik prezioan?

- Ez dago zertan orain baino garestiago izan beharrik. Hori ez da lehen helburua, kontsumitzaileari produktuarenganako konfiantza ematea baizik. Lehen benefiziatua kontsumitzailea da.

- Zer erantzun jaso-
tzea espero duzue?

- Borondatezkoa denez, ez dakigu haragi asko ala gutxi izango den. Emaitzak epe erdi eta luzera ikusiko dira; urrian izan daitezke lehen emaitzak. Gure asmoa aldaketa ahalik eta aguru-
egitea litzateke, merkatuak hala eskatzen du eta. Produktore, banatzaile eta kontsumitzaileei pazientzia eskatzen diegu.

MUJIK A

Burdinaki denda

Bidekurutzeta 8

☎ 76 28 67

BERGARA

MAKAILO

Makailau kazuelak **ETXEA** gertatzen ditugu

Ibargarai 15

Udaletxeko obrak

barrutik

Iñaki Azpiazu
arkitektoak lanak nola
doazten kontatu digu

Udaletxea birgaitzeko lanek aurrera jarraitzen dute eta gauzak normal joaten badira, datorren urteko lehen egunetarako prest izango da. Lanak nola dauden ikusteko, Iñaki Azpiazu, arkitektoarekin, eraikuntzan zehar ibili gafa.

Solairuz solairu azaldu digu Azpiazuk nolakoa izango den Udaletxe berria. Beheko solairuan Idazkaritza, Kirol Zerbitzua eta Udaltzaingoa kokatuko dira. *"Bulegoetan abalik eta material modernoak erabili ditugu. Zoru flotanteak eta kendu daitezkeen mokat erabili ditugu. Tabi-keak mugikorrek dira eraikuntzaren banaketa aldatu nahi bada. Gauza hauekin eraikuntza historikoa izan arren, funtzionalitatea bilatu nahi dugu gaurko gizartearen eskaerari erantzuteko"* dio Azpiazuk.

Birgaitzearekin batera, Udaletxeari beste zati bat gehitu zaio. Hori beharrezkoa izan da, kultura izan ezik, Udalak eskeiniko dituen zerbitzu guztiak aurrerantzean bertan kokatuko baitira. Beheko solairua ikusi ondoren, oraindik guztiz amaitzeko zerbait falta da, lehenengo solairura igo gara. Hor ikusi dugun lehen tokia alkatetzaren bulegoa izan da. *"Alkatetzaren bulegoa intxaur*



Azpiazu, Udaletxeari gehitu zaion zatiaren ondoan.

Udaletxeko birgaitze lanak aurrera doaz eta datorren urte hasierarako prest izango da. Lanak nola dauden eta Udaletxe berria nolakoa izango den jakiteko Iñaki Azpiazu, birgaitze lanen arkitekto arduradunarekin, egin dugu bisitaldia Udaletxean zehar. Horrezaz gain, Gasteizen bizi den arkitekto ber-gararrak egindako beste proiektu garrantzitsu batzuez aritu gara.

egurrez bukatua dago eta bertatik pleno aretora joan daiteke. Udal biltzarrean zinegotziak eta alkatea biltzen ziren mahaia, lehen, azokarantz zegoen kokatua eta orain

bestaldean jarri dugu. Horrela Udal ordezkariak toki batetik sartuko dira eta publikoa bestetik" esan digu Azpiazuk.

Pleno aretoan langile talde bat errielebe eta

pinturak pintatzen aurkitu ditugu, euren asmoa aurreko pleno aretoak zuen itxura berbera izatea baita. Halaber, orain arte areto nagusia ekitaldi politikoetarako erabil-

tzen bazen bakarrik, Udaletxe berriarekin erakusketak eta horrelakoak egiteko asmoa dago.

Elbarrituentzako igogailua

Bigarren pisuan hiri-gintza komisioak eta ongizate zerbitzuak izango dira. Bertara joateko igogailuak daude elbarrituentzat. Udaletxeak bi sarrera ezberdin izango ditu, bata zerbitzu eske donarentzat eta bestea, pleno aretora joateko. Azkenengo pisuan, ganbara zena, alderdi eta sindikatu ezberdinentzako bulegoak izango dira. Bulegoak kristalera batekin daude eginak eta teilatua solera handi bat dago argia sartzeko.

Udaletxearen haunditzea aprobetxatuz sotoa egin dute eta hor Udal Artxibategia, Udaltzainen aldagelak, igogailuaren eta aire egokituaren makinaria joango da. Artxibategian Bergarako agiri garrantzitsuenen erakusketa, kontsulta liburutegia, talde lanean egiteko gela eta Ikerkuntza Saila izango dira. Kanpora irten eta oraindik egin gabe dauden eskaileretatik San Pedrorantz igo gara. Hor San Martin plaza eta San Pedroren artean plazoletatik bat egiteko asmoa dago eta bidea ere haunditze-ko planak daude. Udaletxearen barruak ikusi eta gero, Azpiatzuk fatxadari

"Fatxadako harria ahalik eta berdinenen izateko hainbat harrobetan bila ibili gara eta azkenean Durangotik ekarri dugu"

buruz hitz egin digu. *"Kornisaren moldura errespetatu egin da eta bolutak ere errespetatu egin ditugu, molde berezi batzuk eginez. Udaletxe zabarraren eta bere zabaltearen artean desberdintasuna nabaritu da. Baina estetika berdinari eutsiko dio bi fatxaden arteko kriterio bateratua mantenduz. Ez diogu fatxada zabarrari garbiketa handirik egingo, zeren asko garbitzen bada harriak defentsarako dituen materialak ken baititzakegu. Fatxadan jartzeko harria abalik eta berdinenen izateko bila aritu gara eta azkenean Durangoko harrobi batetik ekarri dugu".*

"Edifizioa garai bateko produktua"

Udaletxeko obrak ikusi eta gero Azpiazuri gure herrian dauden eraikuntza historikoen egoerari buruz galdetu diogu. *"Eraikuntza adierazgarrienen artean ikusi behar da eta zaindu behar dira saneamenduak. Gune Historiko osoan zehar*

obrak egitea garestia bada ere, behintzat etxe garrantzitsuetan saneamendu obrak egin behariko lirateke. Guk egindako obretan ikusi dugu-


néz, Udaletxeko zutabeetan eta Monzon etxearekin izandako arazoekin, zimentazioari dagokionez, nabiko gaizki daude".



Udaletxeko zutabeekin zimentazio arazoak izan dituzte.

ONENA
TINDATEGIA
 Barrenkale 29, BERGARA

TXURRUKA AUTOAK
 Taxi eta mikrobus zerbitzua.
 Ibilgailu berri eta erabilien salmenta.
 Era guztietako erreparazioak.
 Garbiketak, etab...
 Aitz Iturri - San Lorentzo auzoa BERGARA.
 ☎ 76 12 36 - 76 09 30

Agentzia

 PEUGEOT-TALBOT

"Udaletxean orain arte partxeoak egin izan dira eta horrek epe luzera begira garestitu egiten du"

Gure herrian Udalari hainbat talde kulturalak auditorio egoki bat egiteko eskaera luzatu diote eta Azpiazuk, arkitektoa izanik, herrian hori egiteko leku aproposik ikusten duen jakin nahi izan dugu. *"Bapatean esango nizuke hor dagoela Seminarioko eliza. Orain nabiko egoera kaxkarrean dago eta eraikuntzaren jabetzari dagokionez gauzak ez daude argi. Baina ez dira garai onenak. Udaletxeko birgaitze lanak hasi genituenan dirua zegoen eta orain bukatzeaz dagoen, krisi garaia denez, jendeak nola egin daitezkeen horrelako obra bat galdetzen du. Baina edifizioa garai bateko produktua da eta horrela, orain garestia dena etorkizunean merkea izan daiteke. Orain arte partxeoak egin izan dira eta horrek azkenean garestitu egiten du".*



Gasteizko Justizia Jauregia, Euskal Autonomi Elkarteko eraikuntzarik modernoenetakoa da.

Gainera obra hasita-koan Udaletxean izkutu-

ko arazoak ere ikusi dituzte, zimentatu gabeko

zutabeak, teilatu faltsuak, ezeri eusten ez zioten bigak etab...

Lehengoa mantenduz, funtzionalitatearen bila

Azpiazuk Udaletxeko obra egiterako orduan birizpide nagusi izan ditu: lehengo Udaletxearen itxura mantentzea eta gaur eguneko gizarteak eskatzen dituen zerbitzuak eskaintzeko gai izatea. Arau subsidiarioak duela urtebete argitaratu ziren eta oraindik, gure herria urbanistikoki arautuko duen dokumentoa, eztabaidatzen ari diren bitartean, Azpiazuri horri buruzko eritzia eskatu diogu. *"Garrantzitsuena gune historikoan egin behar diren berrikuntzak*

dira. Eraikuntza industrialen botatzea eta Bergarak dituen zabalkunde posibilitateak. Horri lotuta, Bergarak uste dut, etxebizitzei dagokienez kupoa bete duela eta ez dakit betetzeko lain izango den eskaera. Gero, gune historikoaren eta berriaren arteko loturak ere garrantzitsuak dira. Xabier Maria Munibe plaza ere garrantzitsua izango da eta hortik ikastolara sarrera egokia ematea".

Beraz, Udaletxeko birgaitze lanak, ez uste-koan izan arren, espero bezala doaz eta 1983. urtean onartutako proiektua datorren urte hasierarako prest izango da. Hortik aurrera udal bulego guztiak, kultura zerbitzua izan ezik, Udaletxean izango dira



Pleno Aretoko erliebe eta pinturak pintatzen.


Arkitekto ezagun eta saritua

Iñaki Azpiazuk 39 urte ditu eta 1980an Madrilen arkitektura ikasketak amaitu zituen. Ordutik hona bere lanik aipagarrienak: Gasteizko EHUko Filologia eta Historia fakultatea, gutxituentzako Blas Lopez eraikuntza Gasteizen hau ere, Gasteizko Ingurabidea Lehiaketa Nazionalan lehen saria, Gasteizko Udal Artxibategia, Eltziegoko frontoi kiroldegia, Agarreko garaixearen birgaitzea, Bergarako Udaletxearen Birgaitzea eta Gasteizko justizia Jauregia...

Horretaz aparte Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren Arabako ordezkariak arkitekto onenari ematen zion Olagibel saria bi aldiz irabazi du

Javier Botella lankidearekin batera.

Talde lanean egiten du lan eta berarekin batera Iñaki Berasategi bergararra dabil. Bere azken lana eta ezagunena, Gasteizko Justizia jauregia izan da. "Edifizioa egiterakoan lehen erronka izan zen berau egon behar zen lur saila triangularra zela. Hortik aurrera saiatiu ginen triangularitate hori mantentzen eta aristak etb.ak egin dizkiogu. Berau Gasteiz ibilbidearen amaieran dago, hiriko kalerik garrantzitsuenetarikoa da eta Jauregiak erremate ematen dio". Justizia Jauregia egiteko funtzionalitatea kontutan izan dute eta berrikuntzak ere baditu. "Atxi-



Iñaki Azpiazuk 39 urte ditu eta 1980an bukatu zituen ikasketak.

lotua zeldan sartzen dutenean, zuzenean epailearengana doa, ez du kanpoko jendearekin harremanik. Hau kazetari eta argazkilariek kritikatu egin digute, horrela ezin dutelako argazkirik atera. Horrela morboa

kentzen diogu, zeren horrekin esposatuta doan atxilotuaren kamaraz eta argazkilariz inguratutako irudia erabat desagertzen baita. Epailea, atxilotua eta publikoa toki desberdinetik sartzen dira".

Ezagutu ezazu **LILURAn** benetako ongizatea



GURE MEDIKU ESPEZIALISTEkin

ESTETIKA ESPEZIALIZATUA

Mediku homeopatekin elkarlanean jarduten dugu medikuntza estetiko eta prebentiborik eraginkorrena lortzeko.

Etor zaitez Bidekurutzeta kaleko 7 zenbakira edo deitu 76 31 71 telefonora, goizeko 9.30etatik iluntzeko 8.30etara astegunetan edo 9.30etatik 14.00etara larunbatetan.

Zure edertasuna zure osasunaren pareko delako, biak era pertsonalizatuan zaintzen ditugu.

LILURAn, zeure arazo pertsonala diagnostikatuko dizugu, doan.

ABUZTUAN ZABALIK!!
Astelehenetik ostiralera (9.30-19.30)

Bergarara datorren turista edota lagunen bati zer erakutsiko zenioke?



Itxaso Kareaga
20 urte, ikaslea

Inguruko mendiak, herriko parrokia eta elizak eta herriko giroa orokorrean.



Blas Castelo
36 urte, langilea

San Pedroko eliza, Kristoa, herriko dorretxeak...



Agurtzane Atorrasagasti
32 urte, irakaslea

Herriko etxe bikainak, inguruko parajeak, Gorla eta San Martzial ingurua, igeritokiak, Labegaraieta ingurua, baserriak...



Fermin Uribesalgo
31 urte, langilea

Ameriketakoak, hau da historia haundirik ez duten herrietakoak izango balira, etxe zaharrak erakutsiko nizkieke, hori baita ikustea gustatzen zaiena.



Charlotte Crowe
25 urte, langilea

San Martzial ingurua eta Kilometroetako ibilbidea, eta gero jatetxeetera eramango nituzke, hemen bezain ondo toki gutxitan jaten da eta.



Juan Merino
48 urte, langabetua

Plaza ingurua, bere etxe ederrak ikus zitzaten eta batez ere Jauregi etxea eta bere fatxadako erliebeak.

 **DEBA GARAIA**
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA
Arrasate / Bergara / Elgoibar
T. Aranzadi, 2 behea. ☎ 76 21 80 - 76 06 37

BEHEKO TABERNA
Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak.
ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

PINTXO ETA BOKADILOAK ETA SEKULAKO MARTXA
EUXEBIO II
Irala kalea z/g ☎ 76 07 92

AGIRREBEÑA
Oinetakoak
Erropa denda
Lenzeria
Urteaga 5, Tfnoa: 76 18 29

 **GOXO-TOKI**
D. Irala, 3 - Tlf. 761235
Martzialeri, 34 - Tlf. 762337
BERGARA

KONDE PANADEROKUA

Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57



Ardo kupela, urrezko pistolak...

San Martzialgo jaixa urteko ospakizunik herrikoie-na dugu dudarik gabe. Milaka pertsona igotzen dira ermitaraino -aldapa latzak gaintu ondoren (jaitziera erosoago noski)- ohizko egutegia betetzeko; edan asko baino gehiago, bazkaldu dotore, dantza batzuk bota eta erroskilak erosi (kakakumeen urrezko pistolak baita). Arratsaldeko kalejira herrian egiten den manifestaziorik ederrena izaten da.

Unamunok deskribatu zuen feria folklorikoa zeharo berrindartu da azken urteotan. Koadrilek -gazteak eta helduagoak- prestatzen dituzte aldez aurretik "azpi-egitura" itxurosoak basopean. Mansok eskaintzen digun ardo kupela seko gelditzen omen da bapatean. Kupela San Martzialeraino hurbiltzeak idi dema bat dirudi, neketsua eta poliki-poliki, baina hustea, hori beste kontu bat da, kontu erraza eta azkarra.

Eguraldi ona egiten badu milaka pertsonak batuta bat egingo dute. Euripean bagabiltza barrutik eta kanpotik bustiko gara. Bost axola. Azken finean, urtean behineko festa nagusiaz ari gara eta pena merezi du zeruko eta geografaren oztopo guztiak alde batera husteak jaigiroan ospatzeko bergararren egunik alai-tsuen. Horrela izan dadila!!

Iñigo URRUTIA



San Martzial

Herriatik kanpo ibili beharra daukanak une eta egun bereziak samin sakonez gogoratzen ditu eta berezi-berezi horien artean ere bada berezko *feelinga* sortarazten duenik ere.


Sentimenduen mundua norberari badagokio ere, bergararrantzat San Martzial egunak berezitasun hori duela esatera ausartuko naiz, beste guztiak aski maitatzen ditugula behin eta berriro erakutsi arren, San Martzial herrikotasun eta jatortasunaren erakusgarri dela uste dudalako.

Igande honetan ospatuko dugun jaiak badu, aipatutako ezaugarri horiez gain, beste zenbait berezitasun, horien artean eguraldiaren dependentzia, jaiaren protagonismo guztia jaizaleengan datzala, herriko jendearentzat ia ia eskusiban ospatzen dela eta, azkenengo urteetan, erromeriaren usadioaren aldeko herritarren jarreraren erakusgarri bihurtu dela.

Triste samarra da herriatik kanpo ibili beharra, baina zenbat tristeago San Martzialetan ezin etortzea!

Aurtengoan lagun batek bere *ramadan* partikularra errespetatzearen asteburu hau Sevillan igaroko duela esan didate baina nork daki azkenengo momentuan ez ote den damutuko eta gurekin jaia ospatzera etorri. Hala bedi. Eta benetan ezin dutenek, gure herriatik kanpo kataiatuak ditugun hainbeste anai-arreba, sustraiak San Martzialen dauzkaten zuhaitzak, nahiz eta moztu, urtero-urtero gure lurreen loratzen direla jakin dezatela.

Martin GARITANO



POL-POL

TABERNA

☎ 76 07 78

DEPORTIVO

TABERNA

☎ 76 01 51

FS oto istema *APBenis*

ARGAZKIAK ORDUBETEAN

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallastegi, 2 ☎ 76 00 50



Adamo Tombini erloju modelo ezberdinekin. Erlojuak urtebeteko garantia daukate.

Euskal ordua

Mario Scaccabarozzi Brivio-ko (Como, Italia) erlojugileak eta Bergarako Candy-Mayo enpresan lanean ari den Adamo Tombini injenieriak, Euskal Ordua izeneko erlojuak plazaratu dituzte. Aurretik, 1991an, Scaccabarozzik Lombardiako orduarekin erloju batzuk atera zituen eta, esperientzia haren arrakasta ikusirik, ideia patentatu eta hona inportatzea erabaki dute. Suizako kuartzoan eginak,

erloju hauetako hitz guztiak euskaraz datoz eta, printzipioz, Bergaran (Iruñe bitxiturgia), Arrasate eta Elgoibarren jarri dira salgai. Modelo ezberdinen arabera prezioa 9.950 eta 12.450 pezeta artekoa da.

San Pedro eguna

San Pedro kaleko komertziantek antolatuta, JARDUNeko Trikitilari Eskolako gazteek emanaldi bat eskeini zuten asteazkenean, San Pedro egunean. Eguerdian ohizko kanpaiak jo ondoren, musikari gazte hauek San Pedro kalea alaitu zuten pandero eta soinuez, giro bikaina sortuz. Aurretik komertzianteen zozketa egin zen: 6.804 zenbakiaren jabeak Pink Floyd taldeak Donostian emango duen kontzerturako lau sarrera eta 30.000 pta. jasoko ditu. Eguerdian, San Pedroko komertziantek (35 bat lagun) Pertxa elkartearen bazkaria egin zuten.



32 ikasle dabilta JARDUNen trikitixa eskolan pandero eta trikitixa ikasten.

MAHER
Biltegiak L.E.
Oihal etxea

Bidekurutzeta 29
Tfnoa: 76 22 90 - 76 26 75

GURIA
Taberna

Bidekurutzeta 5,
Tfnoa: 76 20 34

LAKET

Gizon Emakume

Barrenkale 35 BERGARA



MICHELENA

Zertan dibardute ba?



Edu Muruamendiaraz 29 urteko dantzari bergararra sasoi ezinhobean dago. Pasaian Gipuzkoar Aurrekuko Euskadiko Txapelketa eta, Seguran, Amaia Agirrerekin batera, Euskadiko Dantza Askatuko Txapelketa irabazi ondoren, aurreko larunbatean Gipuzkoar Aurrekuko Gipuzkoako Txapelketa irabazi zuen Ordizian. Edu Muruak bere nagusitasuna azaldu zuen, desafioan, alpargata, agurra eta zortzikoan puntuazioarik onena lortuz. Euskadiko Txapelketako errebantxarik ez zen izan, Ramon Sánchez irundarra ez bait zen aurkeztu.

Izaskun Lazpiurrek milioi bat irabazi

Izaskun Lazpiur bergararrak milioi bat pezeta irabazi du **El Diario Vasco** egunkariko "En busca de la marca perdida" izeneko jokoan. Izaskunek, azkenengo aukeran lortu du saria eskuratzea. Bere asmoak, senarrarekin batera Mediterraneora bidaia bat egin, etxean hainbat konponketa burutu eta beren bi semeei (beste alaba bat dauka) gidatzeko karneta ateratzen laguntzea lirateke.

Despedida bazkaria

Jose Iturbe bergararrari despedida bazkaria eskeini zioten **Banco Guipuzcoanoko** lankideek joan den ekainaren 10ean. 43 urtetan lanean izan ondoren, jubilatzeako ordua heldu zaio Joseri. **Aska-Gainen** 16 lagun bildu ziren eta, primeran bazkaldu ondoren, Josek azkenaldian berarekin Elgoibarren lanean ibilitako lankideen plaka oroigarri bat jaso zuen. Ziur faltan botako dutela... Zorionak eta ondo segi!!



☎ 76 20 61

CAMACHO
 Drogeria
 Usaindegia
 Bidekurutzeta 24, Tfnoa: 76 13 35
 BERGARA

OILAGORRA
 Taberna
 Barrenkale 21, BERGARA

Bittor 'Satorretxe'

Mikrofonoa eskuan duela, Bittor Alberdi "Satorretxe" San Martzialak alaitzen ikus dezakegu urtero. Horrez gain, 53 urteko konstruktore hau Gipuzkoako Igeri Elkarteko presidentea da.


- "Satorretxe"rik gabeko San Martzialik izan daiteke?
- Nola ez ba? Ni San Martzialik gabe ez ordea...
- Zergatik galduko zenuke?
- 30 urtetan ez dut galdu, baina ezbeharren bategatik beharbada.
- Lehengo ala oraingo San Martzialak?
- Oraingoak baina 6 t'erdietan hasitakoak, letania eta guzti.
- Igoera ala jeitsiera?
- Igoera.
- Oinez ala Land-Roverean?
- Oinez.
- Goiza ala arratsaldea?
- Goiz partea, bazkal aurretik.
- Jan ala edan?
- Danetik behar izaten da...
- San Martzialek badute alde txarrik?
- Edanak eragindako eztabaidak.
- Zer jango duzue domekan?



"Igandean letania faltan botatzen dut San Martzial osoak izateko. Goiz partea gustatzen zait gehien eta astelehenean ajea ez izateko, onena aurreko egunean zaintzea. Azken 30 urtetan ez dut San Martzial eguna galdu"

- Ez dakit, Igeri Elkartekooi taberna tokatu zaigu eta.
- Ardo gorria ala beltza?
- Beltza.
- Ajea pasatzeko, zer?
- Aurreko egunean zaindu.
- Alkondara ala barruko kamiseta?
- Goizean alkondara txuria, berotutakoan kamiseta.
- Zapatilak ala botak?
- Botak.
- Soka-tira ala txingak?
- Jairako denak onak.
- Txingetan parte hartzeko asmorik?
- Urteek ez dute barkatzen...
- Asko ligau izan duzu San Martzialetan?
- Beti laguneren batekin...
- Dantzan, bai?
- Gero eta gutxiago...
- "Karaoke" lehiaketan parte hartuko zenuke?
- Ez dut uste.
- Astelehenean egingo duzun lehen gauza?
- Bizarra kendu eta gosalduta eta 6 t'erdietan Zaldumendiko Donatori burdia bueltatu.
- Eta aukera izanez gero, nora joango zinateke?
- Mendira.
- Zahatoarekin?
- Baita. Zergatik ez?

MARGO ERAKUSKETA



Benita Gallastegi Galarza
Kimu

NAHIKARI

Taberna

Masterreka, 20 BERGARA ☎ 76 57 71



TOSHARE

• ILEAPAINDEGI MISTOA •
• ESTILISTA •

Artekale, 29 behea
Tfnoa: 76 29 70
BERGARA



BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOAK

Larrañaga

San Pedro, 9 - Teléfono. 761051

R. S. I. 209374 - 55
BERGARA

BONOFOTOA



M. A. ELKOROBerezibar

Dorleta Areitio



Dorleta Areitio jaso du aste honetan BONOFOTOko saria, aurreko asteko galdera berak asmatu du eta. Argazkian agertzen zen santutxua **San Juan** auzoan dago eta San Juanen **lorak** bedekintzen dira urtero ekainaren 24ean, San Juan egunean. **Dorletak** eskuratu ditu aste honetan sariko **10.000** pezetak. **ZORIONAK Dorleta,** eta besteok segi jokatzen.

Zubieta kaleko 30.enean irakurri dezakegunaren arabera, San Martzial egun batez uholde beldurgarriak gertatu ziren Bergaran, Zubietako zubia eroriz, erreka ondoko etxe guztiak eramanez eta 24 pertsona gutxienez hilik suertatuz. Zein urtetan gertatu zen hori?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____

Saria:
10.000 Pzta.

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen:

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, ZUBIZARRETA, ZULUETA,
ESTEFANO, LABORRA eta RUIZ DK.ak

- Azterketa ginekologiko osoak
- Minbiziaren aurretiko diagnostikoa
- Haurdunaldiaren kontrola
- Txekeoak
- Bularreko gaitzen unitatea
- Mamografiak
- Antzutasuna
- Antisorkuntza
- Menopausiaren tratamendua
- Dietak
- Sudurra, eztarria, belarria
- Analisi klinikoak

**GUZTI HAU
ARRASATEN
BERTAN,
URRUTIRAGO
JOAN GABE!!**

Zerkaosketa, 17 etxabea.
ARRASATE. Tfnoa: 79 20 18



Miguel ALTUNA (ELEMENTALA)

institutua

BERGARA

HEZKUNTZ ESKAINTZA

• REM

GOI MAILAKO BATXILERGOAK

- BTI (Batxilergo Tekniko Industrial)

- BAG (Batxilergo Administratiboa)

LH II (Lanbide Heziketa II)

- ADMINISTRATIBOA

- ELEKTRIKO-ELEKTRONIKOA

- MEKANIKA

MODULO PROFESIONALAK III


- MEKANIKAGINTZA

- ENTREPRESEN ADMINISTRAZIOA

Matrikula epea - Uztailaren 1etik 8ra

Orduetgia: 9.00- 13.00

Argibideak: Ibargarai, 1 ☎ 76 24 92 / 76 38 40



IPINTZAKO

nagusiendako III. futbol txapelketa

ASTEKO EMAITZAK

MONGATXURRA • OSINTXU

2 2

OGIZUN • PIKAPIEDRAS

5 1

TXIPIRON • PAOK DE SAN JUAN

1 1

AMILOTX • ANGIOZAR

4 0

FINAL-ERDIAK

Asteartea, 5

19.30: OSINTXU-PAOK S.J.

Asteazkena, 6

19.30: OGIZUN-AMILOTX

FINALA

FINALA ETA 3. ETA 4. POSTURAKO
PARTIDUA OSTIRALEAN, HILAK 8,
JOKATUKO DIRA.

FINALA ARRATSALDEKO 8etan
ETA AURREKO PARTIDUA 7etan.



Gori-gorian daukagu txapelketa. Final-erdietan gara dagoeneko.

• komentarioa •



Iñaki IBARRA

"Aipamen bat egin nahi nuke epaileen jokabideei buruz. Aurreko astean Mongatxurra eta Altos Pornosen arteko neurketa lotsagarria izan zen, Altos Pornosekoei lapurtu egin zioten partidua, Mongatxurraren garaipenaren gola balio gabe utzi behar baitzuen arbitroak. Ekiporik onenak Ogizun eta Amilotx dira. Ondo iruditzen zait aurten federatuek ez jokatzea".

• golegileak •

4 GOL:

• Iban Agirreña (Altos Pornos)

3 GOL:

- Saez De Maturana (Amilotx)
- Bittor Jimenez (Altos Pornos)
- Iñaki Azpiazu (Os Jard.)
- Xabier Elkoro (Paok)
- Santi Fernandez (Ogizun)
- Alex Odriozola (Amilotx)
- Enrique Nieto (Amilotx)
- Mikel Uribesalgo (Amilotx)



ZUBIAURRE

aroztegia

SARRERAKO ETA BARRUKO ATEAK.
HORMA ARMAIRUAK.
EGURREZKO ETA PVC-ZKO LEIHOAK.
ERA GUZTIETAKO AROTZ LANAK.
Zubiaurre, 2 ☎ 76 15 14 / 76 35 73

Amets



• HERGO eta HOBY karabanak eta RIVIERA autokarabanak.

• Zango erremolkeak.

• Era guztietako kanping eta karabanentzako osagarriak.

Informazioa: ☎ 76 25 92 / 78 19 50

AMETS TAILERRAK

Berezano auzoa OÑATI

Karlos Baleztena Nizan jokatu berri den Munduko Triatloi Kopan

Karlos Baleztena 30 urteko antzuolarra 178. postuan sailkatu zen igandean Nizan (Frantzia) jokatuako Munduko Triatloi Kopan. 2.050 partaide izan ziren irteeran eta Karlosek 7 ordu, 9 minutu eta 14 segundu behar izan zituen 4 Km. igerian, 120 bizikletan eta 30 Km. korrikan egiteko. Bere hitzetan, "nere asmoa 6 ordu eta 3/4tan egitea zen baina eguraldi txarra izan genuen eta



Karlos Baleztena igandean Nizako korrika proban. Antzuolarrak hainbat postu galdu zituen triatloiaren azken proban.

bizikleta proban arazo asko izan genituen euria eta haizearekin. Korrikan, berriz, ez nintzen uste bezain ondo ibili eta

zenbait postu galdu nituen proba amaieran".

Baleztenak datorren abuztuaren 27an Almereko (Holanda) Iron-man

proban hartuko du parte. Orduan, igerian 4 Km., bizikletan 180 eta korrikan maratoni bat korritu beharko du.



Gipuzkoako Itzulian

Lokatza Ziklismo Eskolako Aitor Larrea (Sumofic Lokatza) txirrindularia 10. postuan sailkatu zen Gipuzkoako V. Itzulian, prologoa eta 3 etapa jokatu ondoren. Liderrarengandik minutu eta 8 segundutara sailkatu zen Aitor Larrea antzuolarra. Horrez gain, talde bereko Ander Markiegik (argazkian) tarteko helmugan sailkapena irabazi zuen. Taldeka Sumofic Lokatza 11. postuan sailkatu zen eta Señorío de Ojeda taldea 24.ean. Lokatzako ordezkariak oso potitibotzat jo dute esperientzia hau eta Elosuko abadetxean egindako konzentrazioa. Datorren urtean itzuli honen edizio berri batetan parte hartzeko itzaropena daukate.

**INFERNUKUA
TABERNA**

Mahasterreka 23, Tfnoa: 76 18 49

Pepelu

Ileapaindegia

Zurradero, 2 behea.
☎ 76 43 07

Bulldog taldea emakumezkoen futbito txapelkelduna



Txapelduna: Bulldog.



Bigarren sailkatua: Notxingan Flores.



Hirugarrena: Amaiak eta Gutxi.



Laugarrena: Sintrak-Tip.

Joan zen larunbatean jokatu ziren Labegaraieta kiroldegian emakumezkoen futbito txapelketako finalak. Aurten lehen aldiz antolatzen den txapelketako irabazlea Bulldog taldea izan genuen,

finalean Notxingan Floresi 5 eta 1 irabazi ondoren.

Aurretik hirugarren eta laugarren posturako partidua jokatu zuten Amaiak eta Gutxi eta Sintrak-Tip taldeek eta le-

henengoak nagusitu ziren 14 eta 0eko emaitzarekin.

Bost talde aritu dira lehian eta txapelketako jokalaririk onena Uxue Lazkano (Bulldog) izendatu dute antolatzaileek. Go-

legile onenak, berriz, Agurtzane Lete (Bulldog) eta Ainhara Lete (Amaiak eta Gutxi) izan dira eta Ainhara Garitano ostera (Bulldog), atezainik onena. Argazkietan zapa-tuan aritu ziren taldeak.

Sugoi
**ERLOJUAK, ARTIKULO
 ELEKTRONIKOAK,
 KALKULADORAK...**
 Irizar pasealekua, 2 behea
 ☎ 76 59 54 BERGARA

Usoa Pub

 Tfnoa: 76 38 57
 Irala 1

Iletxo Ileapaindegi mistoa
BEGOÑA ARZELUS
 Fleming Doktorea, 7 ☎ 76 53 15
 20570 BERGARA

*San
Martzialak
1933*

Lehenagoko argazkiak ikusita bakarrik nekez antzemango lioke inork gaur egunean San Martzial eguna zer den. Horra albokoak ere ordenan eta txintxo-txintxo: neska, mutil, neska, mutil... kamarari begira eta fotografoari irribarretxo eginaz. Edozein modutan ere, ezin ukatu erretratua benetan ederra dela.

Bertan agertzen direnak, ezkerretik eskumara:

Zutik:

Maria Juaristi, Nikolas Gallastegi, Karmen Jaurregi eta Alejandro Gisasola.

Jarrita:

Graziano Garate, Kon-suelo Arregi, Binizio Gallarreta eta Margarita Urzelai.

Estepan Plazaola

Argazkia:

Maria Juaristi



BOLINTXO

Okindegia

San Juan auzoa ☎ 76 16 93 BERGARA
Ibarrekruz 4 EIBAR
☎ 79 63 42 ARRASATE

LETE

TOLDOAK

Zubieta, 36 ☎ 76 12 24
☎ 76 23 83 ARRASATE

YAZKI

UME GAZTE

Neska eta Mutil

Irizar 3 Ibargarai 8
☎ 76 16 54 ☎ 76 54 73

ETXEBIZITZA

Estudio bat alokatzen da **Benidormen**. Hondartzatik gertu. ☎ 76 23 43.

Garajea salgai Torrekuan. ☎ 76 18 82.

Pisua salgai Artzamendin. ☎ 76 44 60.

Pisua salgai Bolu 18an. 120 m2. ☎ 76 19 17.

Pisua salgai Zubiaurren. ☎ 76 25 19.

Garajea hartuko nuke alokairuan Tokiederren. ☎ 76 52 45.

Zubiaurren **pisua alokatzen da**. ☎ 76 13 85.

Garajea salgai Ibargarai kalean. ☎ 76 00 93.

Oporrak Zarautzeko etxe batetan igarotzeko aukera. ☎ 13 28 49.

Pisua salgai Martokan. ☎ 76 14 60.

Pisua salgai Zubiaurre 23an. ☎ 76 31 49.

Pisua salgai Artzamendi 17n. ☎ 76 10 55.

Matxiategin pisu amueblatua alokatzen da. ☎ 76 46 15

Pisua alokatzen da San Pedro 22an. ☎ 76 13 23.

Garajea salgai Ibargarain. ☎ 76 36 69.

Pisua alokatzen da **Jacan**. ☎ 76 43 98.

Garajea salgai Kruz Gallastegin. ☎ 76 48 36.

DENETARIK

Sango remolke bat salgai. Egoera onean. ☎ 76 61 74.

Opel Kadett 1800 salgai. SS-AH. ☎ 76 58 28.

Donostian (Grosen) pisua osatzeko lagun bat behar da. ☎ 29 11 10 (Bego).

Enkuadernatzeko **prensa** erosiko nuke. ☎ 76 58 28.

Edertze aretoa traspasatzen da. ☎ 76 58 88.

Kanpin denda (2 gela eta portxea) salgai. 2 urte. ☎ 76 58 12.

Paseozko Torrot **bizikleta** salgai, 13.000. ☎ 76 48 68.

Schnauzer txakur-kumak salgai. Pedigreedunak. ☎ 76 48 52 (Xabier).

Sambo kanpin karroa salgai. Osagaiekin, egoera onean. ☎ 74 19 39 (Marisol edo Marian).

Boxer txakur-kumak prezio onean salgai. Pedigree benetan aipagarria. ☎ 945-284271 (Luis Mari).

Vespa 200 TX beltza salgai. 1.600 Km.. ☎ 76 53 12.

Alfa Romeo 33 SS-AB **ko-txea** salgai. ☎ 76 02 01.

Musika ekipoa (150 w.) salgai. Mahaia eta bi bozgorailu. ☎ 76 62 16 (Ibon).

Sango kanpin-erremolke (2 logela) salgai. 150.000 pta.. ☎ 76 39 93.

BMW motoa (K-100 RS) salgai. ☎ 76 12 64.

Bilbon pisua konpartituko nuke. ☎ 76 61 68.

LANA

OHO eta **BBB**ko klaseak. ☎ 76 17 85 (Asier).

Zaharrei kasu egin eta laguntzeko zerbitzua eskaintzen dizugu. ☎ 76 46 26 / 76 18 54. (Eguerdez eta gauez)

Jende heldua zaindu eta etxeak garbituko nituzke. ☎ 75 24 47 (Loli).

Ingeles klaseak ematen ditut (Arantxa). ☎ 76 42 36.

OHO eta **ingeles** klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Matematika, fisika, kimika klaseak. ☎ 76 44 34.

Ingeles Filologian lizentziatuak, ingeles klaseak emango lituzke. ☎ 76 17 36.

Ingelesezko klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

Klase partikularrak. ☎ 76 50 67.

OHO eta **BBB**ko klaseak. ☎ 76 42 08 (Nere).

Egunkariko akzioak saltzeko pertsona bat behar da. ☎ 76 08 19.

Ingeles klaseak ematen ditut. ☎ 76 22 90 (Ainhoa).

Ingeles Filolojiako ikasle batek **ingeles klaseak** emango lituzke. ☎ 762663.

Hildakoak

Aste honetan Bergaran ez da bildakorik izan

Jaiotakoak

Jon Arregi Berasategi
ekainak 13

Omer Garcia Iglesias
ekainak 21

Matxalen Zezeaga Larrañaga
ekainak 24

Atsedeen zentrua

LOKARTU

Koltxoi-Denda

Orain SORALUZEN




ZIRIPOT

Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41

ZUBIETA

elektragintza

- ✓ Motorren bobinaketa
 - ✓ Era guztietako instalakuntzak
- Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48



U.T.B.
1.000.000
pta.rako
3 urtera

**GARANTIZATUTA
3 URTEETARAKO**

1.000.000 pta.ko ezarpena eginez gero, datozen 3 urteotako % 8ko interesa (U.T.B.) garantizatuta duzu. Kontutan izan zure aurrezkien interesa eta zatoz gaur bertan Euskadiko Kutxara. Informazio gehiago 900 555 900 telefonoan.

Eperako aurrezkia



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA